

HELBURU ETA EKINTZEN BILDUMA LANA

SARRERA

Dokumentu hau ikasturteko hizkuntza normalkuntza plana egiteko esparruz-esparruko ideien bilduma da.

Ikastetxeen Planetatik jasotako ideiek eta bururatu zaizkigun beste batzuek osatzen dute.

Oraingoz lau esparru hauek aurkituko dituzu:

- Ikastetxearen antolakuntza. (Urteko FITXAn 1. atala dena)
- Irakasleak. (Urteko FITXAn 2. atala dena)
- Gurasoak. (Urteko FITXAn 4. atala dena)
- Normalkuntza sustatzeko erabakiak. (Urteko FITXAn 5. atala dena)

Bakoitzean esparru horretarako balio dezaketen helburu eta ekintza adibideak jarri ditugu. Modu orokorrean daude idatzita. Ikastetxe bakoitzak egokituko ditu bere egoerara zehaztasunak gehituz.

Geratzen diren beste esparruak lantzen ari gara; honako hauek hain zuzen ere:

- Ikasleak (Urteko FITXAn 3. atala dena)
- Eskolaz kanpoko ekintzak (Urteko FITXAn 6. atala dena)
- Harremanak (Urteko FITXAn 7. atala dena)
- Langile ez irakasleak (Urteko FITXAn 8. atala dena)

Oraingoz amaituta dauden esparruak jarriko ditugu ikusgai dokumentu honetan. Aurrerago, falta direnak bukatutakoan, esparru horiek gehituko dizkiogu eta dokumentua osatuko da.

HELBURU OROKORRAK

Ulibarri programaren barruan Hizkuntza Normalkuntza Proiektuan epe luzera begira (lau ikasturte) ezartzen diren helburu orokorrak dira. Baina nahiko zaila ikusten da hiru edo lau urtetan, are gutxiago, urte betean lortzea. Beraz, urteko fitxan ez da gomendatzen honelakoak jartzea.

323/2003 Dekretuak, abenduaren 23koak, Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri programa arautzen duenak honela dio: **Eskola-munduko euskal giroa bermatzea eta ikastetxeen barne nahiz kanpo-jardueran euskara adierazpide normal bihurtzea**".

Ondorengoak ere helburu orokorrak izan daitezke:

Euskara izan dadila irakaskuntza-sistemaren berezko hizkuntza, ikastetxe-hizkuntza, komunikazio-hizkuntza, eremu formal zein ez-formaletan.

Euskaraz hazi, hezi eta bizitzea: euskararen ezagutza eta erabileraren etengabeko hobekuntza.

Ikastetxeak, egunero, inolako trabarik gabe, euskaraz bere bizitza egin dezan, beharrezko urratsak ematea.

00.0 IKASTURTEKO HELBURU NAGUSIA

Ikasturteko helburu nagusia, ikasturte honetarako aukeratu den helburua izango da, hau da bereziki egin nahi den ahalegina azpimarratzen duena, beti ere Hizkuntza Normalkuntza Proiektuko helburu orokorrak betetzeko asmoz ezarritakoak. Hurrengoak, adibide modura:

Euskararen erabilera bultzatzea.

- Ikasgelan
- Jolas garaian /atari garaian
- Jantokian
- Eskola ordutik kanpoko jardueretan
- Irakasleen artean
- Gurasoen eremuan

Irakasle, ikasle, langile ez irakasle eta gurasoen motibazioa lantzea euskararen aldeko jarrera izateko.

Diagnosia egin: osoa edo aukeratutako eremua/k.

Ikastetxeko Hizkuntza Normalkuntza Proiektua berraztertzea eta egokitzea.

Aukeratutako eskola eremuetan aho hizkuntza aztertu eta lantzea.

Euskararen idatzizko erabilera sustatzea (dokumentuetan, harremanetan: gurasoekin, erakundeekin...).

Euskararen kalitatea hobetzea.

Euskara /euskalkia prestigiodun bihurtzea.

Prestakuntza (IRALE, GARATU...) bultzatzea eremu desberdinetan: irakasleria, langile ez irakasleak....

Euskal Herriko kultura ezagutzea eta bizitzea

Ikastetxeko kalitate-prozesuetan Hizkuntza Normalkuntza txertatzea.

Hizkuntza Normalkuntza Batzordea sendotzea: bilerak sistematizatu eta eragileen partaidetza indartu (zuzendari, irakasle, guraso, ikasle, langile ez irakasle, begirale...).

01.0 IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA. OROKORRA

Ikastetxearen funtzionamenduari buruzko atalak ditugu hemen. Beste esparruetan bezala, aurtengo helburu orokorra idatziko dugu. Esparrurako jarritakoen artean aukeratuko dugu. Esparruaren atal desberdinetan landuko duguna helburu honen inguruan izango da.

Ikastetxe osoaren inplikazioa lortzea normalizaziorako bidean.

- Ikastetxeko lan taldeetako bilerak euskaraz egin eta bertan sortutako dokumentazioa euskaraz izan.
- Urteko Planaren bitartez, Klaustroan eta Eskola Kontseiluan, HNPa gehazten duen helburu nagusia berretsi.
- **Batzorde Pedagogikoa lan eremutzat erabiliz, mintegiek eta zuzendaritzak HNPa lantzen dugunaren berri izan eta batzordearen lan eta egitasmoetan parte hartu.**
- **Zuzendaritza Batzordeko kide bat eta etapa bakoitzeko koordinatzaile bat egongo da HNPa. Esparru hauetan guztietan azalduko ditu HNPa bere egitasmoak, bai klaustroan eta baita idazkaritzakoei ere. Gainera gauzatu ahal izateko laguntza eta baliabideak eskatuko ditu.**
- **Normalkuntza ikastetxeko organigraman txertatu.**
- **Kanpokoekin harremanak: dokumentazioa eta materiala euskaraz izan.**
- Kanpotik datorren informazio zein dokumentazioa, propaganda barne, euskaraz eta gaztelaniaz baldin badago, euskarazko alea zabalduko da.
- **Administrazioak ematen digun ordu-kopurua gutxi izanda, ikastetxeak beste ordu batzuk eman.**
- **Normalkuntza proiektuari denbora gehiago eskaini arduradunaren aldetik.**
- **Normalkuntzaren berri zabaldu ikastetxeko lan esparru eta talde guztietan, inplikazioa bultzatuz.**
- **HNPa berrikusi eta egokitu.**

Euskalduntasun maila hobetzea ikastetxeko esparru guztietan.

- **Zikloen arteko aldizkariarekin jarraitu.**
- **Irratia, telebista, aldizkaria... erabili motibazioa lantzeko.**
- **Euskara ataleko materiala ikasleen premietarako prest jarri.**
- **Irakasle zein langileek dokumentazioa (inprimakiak, eskaerak, informeak...) betetzerakoan euskaraz dagoen bertsioa aukeratuko dute.**

- Etorकिनен egokitze prozesua aurrikusi eta sistematizatu. Akordioak hartu.
- Irakasleen prestakuntza bultzatu eta erraztu: IRALE, GARATU...
- NOLEGA deialdietan parte hartu.
- Hezkuntza Sailera D ereduetan irakasteko baimena eskatuko da.
- Ikasketa elebidunaren berri ematea, publizitate egokia erabiliz .
- Ordenadore guztien idazmahaietan euskarazko helbide elektronikoien sarrera zuzena (www.ulibarri.info).
- Arlo pedagogikoko materiala aztertu, bai eduki bai hizkuntza aldetik ere; eta hala dagokionean hizkuntza aberastu.
- Ikastetxeko barne dokumentu ofizialak euskaraz sortu, euskaratu edo/eta gain begiratzeko denbora eman eta jarraipena egiteko arduradunak izendatu.
- Ikastetxean ekoizten diren dokumentu grafiko guztiak (oharrak, barne dokumentazioa, kartelak, pankartak...) euskaraz zuzenak eta egokiak izango direla ziurtatu.

Ikastetxean euskararen erabileraren beharra sortzea jarrera eta jokabide baikorrak bultzatuz.

- Material berriak euskaraz erosi.
- Kanpoko eragileekin ekimenak antolatzen direnean (bidaietako gidariak, begiraleak, bisitaldien gidariak, ikastaro eta hitzaldien emaleak...) euskaraz egin dezaketenen aldeko diskriminazioa egingo dugu.
- Klaustroak, bilerak... euskaraz egin
- Aho hizkuntzaren lanketa sistematikoa burutzeko antolaketa egin.
- Euskara dakiten gurasoekin euskaraz hitz egingo da.
- Diagnostika egingo da.
- Antolakuntza esparruetan eragin zuzena duten irakasleei espreski (liburutegiko arduradunari, dokumentazio arduradunari, idazkariari...) esparru horietan euskararen erabilerarako adostu diren erabakiak eta jokabideak gogoraziko zaizkie.
- Ikastetxean eragiteko adostu diren hizkuntza jokabideak gogoratuko dira:
- Ikasturte hasieran klaustroan, lehen klase egunean, Eskola Kontseiluan...
- Edozein ekintza gauzatu aurretik, euskaraz egin daitekeen aztertuko dugu.
- Esparruren baten orain arte egin ez den zerbait berria eransten bada, euskararen agerpena ziurtatuko da.
- Euskararen erabilera ziurtatzeko irakasle, ikasle eta ez irakasleei, esparru hauetan haien gabeziak eta beharrak zeintzuk diren galdetuko zaie. Beharrak asetzen saiatuko gara.
- Matrikulatzen diren ikasleen inguru eta jatorri soziolinguistikoa aztertuko da, hizkuntza erdua sendotzeko, indartze beharrak ikusteko eta antolakuntza esparru guztietan kontuan izateko.

01.01 IKASTETXEAREN ZUZENDARITZA

ANTOLAKUNTZA.

a. Zuzendaritza Taldearen barne bilerak.

Taldekideen arteko bileretatik abiatu behar dira. Atal guztietan euskararen agerpena normalizatu nahi bada, leku guztietan (talde handiak zein txikiak, eraginkortasun handikoetan zein txikikoetan) isla izan behar du.

Zuzendaritzak HNPa-ren jarraipena egitea eta proposamenak burutzen laguntzea.

- HNPa osotasunean berrikusi eta hobekuntzak sartu.
- Zuzendaritza taldeko bilera monografikoak egin gai honen inguruan hainbat erabaki hartzeko.
- HNPa ikastetxeko organigraman txertatu.
- Zuzendaritza Talde berriari HNPa-ko lehentasunak eta beharrak adierazi.
- Ulibarri programaren eragina beste estamentuetara bideratu.
- Zuzendaritza Taldea HNPa-n inplikatu eta babesa eman.

Zuzendaritza Taldekoen euskara maila hobetzea.

- Zuzendaritzako kideek euskaraz jarduteko izan ditzaketen beharrezkoetan elkarri lagundu.
- Ikastetxean antolatutako hobekuntza ikastaroetan parte hartu.

Ikastetxeko dokumentu ofizialak eta ez ofizialak euskaraz idaztea, eta behar denean gaztelerara itzultzea.

- Zuzendaritzako inprimaki eta akta guztiak euskaraz idatzi.
- Gurasoentzako idatzi elebidunetan euskarazkoa nabarmendu.
- Gaztelania hutsez heltzen den dokumentazioaren igoerari euskaraz bidal dezan eskatu.
- Web orria euskaraz sortu.
- Beharrezkoa den gaztelerako dokumentazioa euskaratu.
- Ikastetxean euskaraz dagoen dokumentazioa euskarri informatikora pasa: ereduak, txostenak, e.a.

b. Zuzendaritza Taldea eta klaustroa

Ahozko komunikazioan, idatzizko oharretan, deialdietan, plangintzen eta proposamen diseinu eta zabalkundean, erabakien aktetan, eta abarreko dokumentuetan eragin daiteke. Zuzendaritzaren protagonismoa eta lidergoa garrantzitsua da. Haiengandik joera eta proposamenak baldin badatzo nolabaiteko 'babesa' eta bultzada izango dute proposamen horiek.

HNPa eta Zuzendaritzak ikasturteko HNPa zehaztea.

- Zuzendaritzako partaide bat HNBan egongo da.
- HNAT eta HNBko kideek lana gauzatzeko beharrezko orduak eta denborak kontuan izango ditu ordutegi eta egutegiak egiterakoan.
- Ikastetxeko dokumentu ofizialetan HNPa txertatuko du.
- Ziklo berrietan euskal lerroa martxan jarri.
- Euskararen erabilera indartzeko Zuzendaritza eragile izan: NOLEGA deialdiak, bazkal ondoetan ekintzak antolatzeke, aldizkaria, karaokea, herri kirolen txapelketa, Eguberritako eta ikastolako jaialdiak egin, ipuin eta aditz lehiaketak antolatu.
- Irakasleen prestakuntza bultzatu eta erraztu.

Klaustroak HNPa bere egitea.

- Euskara maila hobetzeko eta euskara bera erabiltzeko proposatzen diren ekintza eta jardueretan parte hartu.
- Irakasleriaren euskara maila etengabe hobetzeko jarduerak egin.
- Klaustro kideen artean euskaraz gehiago eta hobeto aritzeko laguntza eskaini.
- Klaustroko deialdi eta aktak euskaraz sortu eta bilerak euskara hutsean egin.
- Normalkuntza Urteko Plana onartu, bertan agertzen dena bete, ikasturte bukaeran, egindakoa baloratu eta hurrengo ikasturterako proposamenak egin.

c. Zuzendaritza eta beste organoak.

Instituto eta ikastetxeetako Organo Gorenetan Zuzendaritza Taldeak lidergoa dauka. Agente eraginkorra izanik, bere jokabideak joera marka dezake, eta hala egiteko era normalizatua bidera dezake. Zuzendaritzak Batzorde Pedagogikoan, ekonomikoan, gurasoekin eta bestelakoetan portaera suspertu eta bultzatu dezake.

Batzorde Pedagogikoan euskararen erabileraz gogoeta egitea.

- Zikloetako koordinatzaileekin, zikloetan erabilera bultzatzeko egiten diren ekintzen hausnarketa-ebaluaketa egin.

Zuzendaritza taldekoek ikastetxeko batzar desberdinetan (Organo Gorena, Batzorde Pedagogikoa, Guraso Elkarte...) euskaraz egitea.

- Deialdi, gonbidapen, ohar eta bestelako komunikazioetan euskara erabili, eta behar denean gaztelerara itzuli.
- Ikastetxeko asanbladetan euskararen erabilera ziurtatu.
- Gurasoekin egiten diren bileretan euskararen erabilera ziurtatu.

d. Zuzendaritza eta kanpoko harremanak.

Zuzendaritzako kideak administrazioko erakunde eta lankideekin, udaleko ordezkari eta arduradunekin eta beste hainbatekin harremanetan egoten dira. Harreman hauek aztertuz, bertako jarrerak eta jokabideak bideratuko dira.

Ikastetxearen euskal izaera transmititzea.

- Normalkuntza Plana ikastetxearen aberasgarritzat azaldu: matrikulazio kanpaina, web orria, publizitatea...
- Lehen hitza euskaraz egin.
- Euskara erabili komunikatzeko.
- Euskaldunekin beti euskaraz jardun.

Zuzendaritza eta Erakundeen arteko elkarlana bultzatzea euskararen erabilera eta euskal kultura bermatzeko ekintzak antolatuz.

- Euskarazko filmak herriko zinema aretoan eskaini ziklo desberdinei.
- Irakurketaren zaletasuna bultzatzeko “liburuen altxorra” kanpainarekin jarraitu.
- Ikastetxe eta herri mailako normalkuntza planak uztartu: korrika, lehiaketak, kultur ekintzak, kirolak, festak...
- Udalari ekintzak euskaraz antola ditzan eskaera luzatu eta beharrezko baliabideak ezartzeko.

01.02 IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA. LAN-TALDEAK

Lan-taldeak ugariak eta anitzak dira. Beraien funtzionamendu era aztertu ondoren euskararen normalkuntza eguneroko jardunean txertatu eta bere gain hartu.

Lan-talde guztietako bilerak euskaraz egitea eta aktak euskaraz idaztea.

- Bileretan euskara lehenetsi.
- Lan-talde guztiei HNPa azaldu.
- Normalkuntza gauzatzeko lan-taldeein eginkizunak zehaztu.
- Kalitate prozesuetako lan-taldean HNPa aplikatu.
- Gero eta gehiago erabili euskara lan-taldeetan.

HNBa osatzea eta indartzea.

- Talde honetan parte hartzeko gonbitea - deialdia egin.
- Herri mailako lan taldeetan HNBko kideren batek parte hartu.

HNPan estamentu guztien inplikazioa lortzea.

- Estamentu guztietako kide berriei proiektuaren berri eman eta lehengoei gogorarazi.
- HNBan ziklo guztietako ordezkariak egon.
- Lan talde bileretan partaideek plangintzaren zehaztapenak izango dituzte eta proposamenak egiteko tokia izango dute.
- Ikasle Batzordea sortu eta HNBan egon.
- Gurasoen Batzordea sortu eta HNBan egon.
- Langile ez irakasleen Batzordea sortu eta HNBan egon.
- HNbaren eraginkortasuna handitu: irakasle finkoaz osatu, Batzorde Pedagogikoa eta HNBa lotu, ziklo edo mintegi ezberdinetakoek parte hartu...

01.03 IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA. DOKUMENTAZIOA

Ikastetxeetan dokumentuak etengabe sortzen, aztertzen eta erabiltzen dira:

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua (IHP).

Ikastetxeko Curriculum Proiektua (ICP).

Antolamendu eta Ihardueretarako Arautegia (AIA).

Hizkuntz Normalkuntzako Plangintza (HNP).

Ikastetxeko Urteko Plana (IUP).

HNPko Urteko Plana.

Hizkuntza Proiektua.

Kalitate Prozesuak kudeatzeko dokumentazioa.

Ikasturteko Memoria.

Web orria.

Deialdiak.

Aktak: Klaustroa, Eskola Kontseilua, Ekonomi Batzordea, Zuzendaritza, Mintegiak, Batzorde Iraunkorra, Batzorde Pedagogikoa...

Matrikula inprimakiak.

Eskola liburuak.

Ikasleen fitxak.

Buletinak.

Ziurtagiriak.

Erregistro liburuak.

Artxiiboak.

Inbentarioa.

Oharrak: barneko funtzionamendua, jantokikoak, gurasoekikoak...

Jantokiko menua.

Hutsegite zerrendak.

Baliabideen zerrendak.

Publizitatea.

Posta

Bulegoa: kontratuak, ordain agiriak, logotipoa, tanpoia, eskaerak, zigiluak...

Egutegi eta ordutegiak.

Norberaren arloko planak, antolamenduak, txantiloiak, programazioak...

Gutunak.

Zerrendak, materialaren eskaerak, inkestak, galdetegiak...

Ikastetxean sortzen edota erabiltzen den guztia beti euskaraz izatea eta behar izanez gero gaztelerara itzultzea.

- Edozein motatako dokumentua (aukeratu goiko zerrendatik) euskaraz erabili.
- Gaztelaniaz dauden dokumentuak (aukeratu goiko zerrendatik) euskaratu.
- Dokumentu berriak eta egokitu beharrekoak (aukeratu goiko zerrendatik) euskaraz sortu.
- Harreman ofizialetako dokumentuetan euskara lehenetsi.
- Idazkaritzan behar diren dokumentuen ereduak euskaraz izan.
- Elebidunak diren dokumentuekin euskarazko bertsioa aukeratzeko ohitura indartu.
- Normalkuntzako erabakien eta baliabideen karpeta osatu, ezagutzen ez dutenei aurkezteko.

Ikastetxetik ateratzen diren dokumentu guztietan behar bezalako kalitatea bermatzea.

- Dokumentazioan hizkuntza zuzena eta egokia erabili. Egiten diren dokumentu guztiak gainbegiratu.
- Zuzentzaile ortografikoa euskarazko sarean instalatu.
- Sortutako dokumentu ereduak ezagutarazi eta erabili.
- Euskarazko zuzentzaile ortografikoak erabili.

Ikastetxeko informatika mundua euskaraz izatea.

- Ikastetxeko web orria euskaraz izan, eguneratu, egokitu, zabaldu... eta normalkuntza atala izan dezala.
- Informatika hizkuntzaren kalitatearen jarraipena egin.
- Europa Proiektuetan (Sokrates, Leonardo...) Euskal kultura eta euskararen erabilera bultzatu, batik bat proiektuei dagokien web orrietan eta publizitatean.
- Ikastetxeko informazio orokorra euskaraz zabaldu baliabide informatikoen bidez.
- Euskaraz idazten laguntzeko softwaren programa aurkeztu.
- Behar diren euskarazko dokumentu ereduak sortu eta digitalizatu.
- Informatikako baliabideak euskaraz erosi eta erabili: softwarea, programak...

01.04 IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA. MATERIAL PEDAGOGIKOA

Ikastetxe batean material pedagogikoa eguneroko tresna da, kanpotik ekarrita, erosita edota irakasleek beraiek sortua. Jende ugari erabiliko du eta horregatik eguneratuta egon behar du, eskuragarri egon eta erabilgarria izan behar du.

Ikastetxeko eremu ezberdinetan ekoizten/erosten den material berria euskaraz izatea.

- Materiala erostean euskaraz dagoenari lehentasuna eman.
- Ekoizten den multimedia materiala euskaraz egin eta mediateka hornitu.
- Material informatikoa euskaraz erosi eta ezagutarazi
- Ikasle eta irakasleen agendak euskaraz egin.
- Liburuaren Eguna dela eta liburu-dendak eskolan antolatzen duten liburu-azokan euskarazko liburu gehiago ekartzea.
- Euskal hiztegiak erosi.
- Bizkaieraz dauden materialak eskuratu.
- Amara-Berri metodologiako materiala euskaraz sortu.
- Euskaraz sortutako materialak sustatu, erabili eta hobetzen lan egin.
- Heziketa Zikloetarako euskaraz dagoen materiala bideratu.
- Ikasleekin erabiliko den materiala erdaraz baldin badago euskaratu: Informatika, FOL, Heziketa Fisikoa...

Euskarazko baliabide didaktikoen bilduma osatzen joatea.

- Ikasleentzat erakargarriak diren jokoak euskaraz sartu geletan (Zenbakiak eta hizkiak, Matraka, Donostia ezagutzen...).
- Aho hizkuntzaren lanketa erraztu dezakeen material bilketa egin eta zikloetan sailkatu.
- Kirol materiala euskaraz eskuratu.
- Gazte hizkeraren inguruan dagoen material pedagogikoa bildu, zabaldu, bideratu.
- Euskaraz dauden material teknologiko berriak gehitu.
- Antzerkigintza eta kantagintzarako euskarazko materiala eskuratu.
- Euskal ohiturak lantzeko materiala bildu.
- Euskaraz hitz egitera motibatzen duten hormirudiak ipini ikastetxeko toki ezberdinetan.

Ikastetxean dagoen material pedagogikoa aztertzea eta behar dena berritzea edo sortzea.

- Euskara arloko testu liburuak sakonki aztertu (iturri epistemologikoa, metodologikoa, erakargarritasuna, satisfazio maila...).
- Merkatuan dauden euskarazko testu liburuak ezagutu eta aztertu.
- Euskal curriculumaren azterketa egin eta lanketarako materiala aukeratu.
- Ikastetxean dagoen euskarazko materiala ikastetxean zabaldu eta horren berri eman.
- Gelan erabiltzen diren material pedagogikoen hizkuntza eta honen kalitatea aztertu eta behar denean egokitu: entziklopediak, manualak, bideo-zintak, CDak, informatikako programak, aldizkariak, DVDak, liburuxka tematikoak...
- Euskaraz daukagun material pedagogikoa ezagutarazi: zerrenda egin eta hilean behin orri informatiboa irakasleei pasa.
- Euskarazko material pedagogiko berrien zerrenda eta aurkezpena egin.
- Eskualdeko "berba goxoen" bilduma egin eta plazaratu.
- IDATZIAK liburua erabiliz material berria osatu era egokian.

01.05 IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA. LIBURUTEGIA

Ikastetxeko liburutegiak laguntza emateko eta ezagutzarako behar den euskarri eta zutabea izan behar du. Irakasle eta ikasleen dokumentazio eta iturria izateko eguneratuta eta osatuta egon behar du, alegia, ikastetxearen zereginaren handienari eusteko behar den guztia edo gehiena izan behar du: dokumentazioa, informazioa, osagarriak eta kulturaren gozamenerako baliabideak. Gainera, toki atsegina eta erakargarria bihurtu behar da kultura osotasunean era atseginez zabaltzeko.

Liburutegiaren erabilera didaktikorako plana prestatzea euskarazko baliabideen erabilera sustatuz.

- Gela bakoitzean liburutegi txoko bat izan ikastetxeko liburutegi orokorraz gain (liburutegiko liburuekin eta ikasleek ekarritako materialekin): komikiak, olerkiak, ipuinak, aldizkariak, hiztegiak, asmakizunak...
- Liburutegiaren erabilera areagotzeko plana adostu.
- Gela bakoitzari tarte bat eskaini liburutegira joateko, ordutegi barruan bisitaldiak txertatu eta mailegua gauzatu.
- Liburutegia martxan jartzeko proiektua egin, klaustroak onartu eta arduraduna izendatu.
- Irakur zaletasuna bultzatzeko programaren batean parte hartu: Idazleak eskolan, Liburuen altxorra, Galtzagorri, Hull kanpaina...
- Euskaraz sortutako material berri, kontsulta zein irakur zaletasuna bultzatzeko liburuen berri zehatza jaso aldi oro ikastetxeko partaide guztiok.
- Gelan idazleen txokoa martxan jarriko da.
- Argitarapen berriei buruzko txokoa abian jarri.

Liburutegiko fondoa geroz eta euskaldunago izatea.

- Liburu berriak erostean euskarazkoei lehentasuna eman.
- Argitaratzen diren euskarazko egunkari eta gazte-aldizkariak euskaraz erosi.
- Material informatikoa euskaraz erosi.
- Mediateka euskal materialez hornitu.

Liburutegiko antolaketa eta mailegu zerbitzua euskaraz eskaintzea.

- Liburutegia antolatzeko aplikazio informatikoa euskaraz garatu.
- Euskarri informatikoa euskaraz izan eta erabili.
- Euskal liburuen zerrenda osatu eta euskarri informatikoan sartu.
- Euskarazko liburuen mailegu zerbitzua antolatu eta euskarazko baliabideak erabili eta horretarako behar den materiala euskaraz egokitu.
- Herriko liburutegiarekin koordinatu.
- Liburutegiko arduraduna euskalduna izan.
- Begirale euskalduna liburutegia zaintzen eta laguntzen jarri.

01.06 IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA. PAISAIA LINGUISTIKOA

Atal honek garrantzi handia dauka; kanpotik datorrenentzat hizkuntza paisaia lehenengo erreferentzia da eta sartu ahala zer nolako giroa dagoen erakusten digu. Barrukoentzat harreman eta informaziorako era bat da, komunikaziorako erabiltzen den tresna da. Komunikazio hori euskaraz egiten da, hizkuntzari berari eta bere erabilerari laguntza emango dio, zalantzarik gabe. Begi bistakoak diren mezuek eragin nabarmena daukate, eta ikastetxearen izaera transmititzen dute.

Paisaia linguistikoa euskaratzea.

- Paisaia linguistikoaren diagnostia egin: publikoari begira jartzen diren komunikatu, ohar, mezu, kartel eta abarren hizkuntzaren azterketa egin.
- Diagnostiaren emaitzak aztertu eta erabakiak hartu.
- Iraunkorra den errotulazioa: iragarki tauletan jarritako ohar, publizitate zein edozer euskaraz dagoela ziurtatu.
- Ikastetxeko web orria euskaraz diseinatu.
- Paisaia linguistikoa zaindu: eskolan dauzkagun kartel guztiak euskaraz idatzita izan eta jartzen ditugun irudi eta marrazkietan euskal kultura islatu.
- Akatsak zuzentzeko paisaia linguistikoa erabili gelan landutakoa birgogoratzeko.
- Gazte hizkera eta freskotasuna lantzeko paisaia linguistikoa erabili esamoldeak, esaera zaharrak... jarriz.
- Sortu diren espazio berrietan errotulazioa euskaraz izan.

- Iragarki tauletan propagandako posterrak elebidunez agertzen direnez, euskararen presentzia areagotu.
- Gazteleraz dauden mezuak euskaratu.
- Jolaslekuko paisai linguistikoa berritu: euskal jokoetan aritzeko egokitu.
- Jangelan euskal gaietako posterrak jarri.
- Eskolako pasilo, eskailera, jangela ... tan euskal kulturaren inguruko koadroak, euskararen aldeko mezuak, leloak... jarri.
- Barruko deialdietan, paneletan jartzen diren eskutitz, zirkular eta beste ohar batzuk bizkaieraz erabili.
- Normalizaziorako berezko iragarki taula prestatu (irakasleen eremua, ikasleen eremua...).
- Euskara egunean eta korrika garaietan hormirudiak egin eta jarri.
- Jaietan informazioak eta sinboloak hormetan itsatsi.
- Geletan euskaraz sortzen diren lanak besteei ezagutarazteko hormetan ipini.
- Ikasgelak euskaraz girotu.
- Kirol emaitzen taulak euskaldundu: Kirol Batzorde eta Guraso Elkartearekin adostu eta elkarlana eskaini.
- Gazteleraren adiera jaso behar bada, euskarazkoaren nagusitasuna erabili proportzio eta tipografia bereiziz.
- Kartel guztiak diseinatu bezeroei gogorarazteko euskara ere erabil dezaketela.

02.00 IRAKASLEAK. OROKORRA

Esparru honetan irakasleriak hartu beharreko hainbat erabaki, irizpide eta prozedura zehaztuko dira; motibazioa, ezagutza, erabilera eta partaidetza lantzen den bereiztuz.

Irakasleen artean Euskaraz aritzeko motibazioa lantzea.

- Motibazio saioak irakasleentzat antolatu.
- Erabilera diagnostikoa egin eta emaitzen inguruko hausnarketa egin.
- Erabileraren garrantziari buruzko irakurgai bat aztertu.

Irakasleen euskara maila hobetzea.

- Ikastaroetan parte hartu.
- Ikastetxean antolatzen diren ikastaroak euskaraz egin.
- Irakasleen artean elkar eragina zihurtatu: mintzalaguna, berbalaguna...

Ikastetxeko egoera guztietan euskaraz aritzea.

- Egoera formaletan (klaustro, bilerak, aktak...) euskara erabili.
- Kideen arteko harremanetan euskaraz jardun.

Irakasle guztiak HNPan inplikatzeari.

- Hizkuntza normalkuntza batzordean parte hartu.
- HNPko ekintzak gauzatu.

02.01. IRAKASLEAK. MOTIBAZIOA.

Hizkuntza Normalkuntzarako irakaslearen kontzientzia, aldeko konpromiso eta rolen beharra eta garrantzia ondo adierazi eta barneratu behar da. Irakaslearen inplikazioa, borondatea eta aldeko jarrera ezinbestekoa da.

Euskararen normalizazioan irakasleok dugun garrantziaz jabetzea eta helburuak eta norberaren inplikazioak argi izatea

- Normalizazioari buruz prestakuntza saioa eskaini.
- Motibazio saioak (hitzaldia, ikastaroa, ekintza zehatzak...) irakasleentzat antolatu.
- HNP proiektuaren ikuspegi orokorra eta globalaren inguruan informazioa eman.
- Irakasleei ikasturte hasierako klaustro batean Normalkuntza proiektuaren berri eman.
- Erabileraren neurketaren berri eman eta hausnarketa egin.

Euskararen normalkuntzan irakasle oro arduratsu izatea, ardura hori batzordekideengan soilik gera ez dadin.

- Batzordearen osaketa aldatu eraginkortasun maila handitu asmoz.
- Irakasleen esperientzia esanguratsuak elkartrukatzeko gunea sortu.
- Aurreko urteko ekintza arrakastatsuenak aipatu eta irakasleen lanaren garrantzia goraipatu.
- Diagnostika abiapuntua izanik ezagutza eta erabileraren arteko aldeak aztertu.
- Ekintzak antolatu irakasleen ezagutza mailaren arabera.
- Irakasleen gaitasun maila kontuan izanda eginkizunak antolatu, arrakasta eta atsegin maila ziurtatuz.
- Ekintza guztien berri eman eta laguntza etengabekoa izan.
- Irakasle batzuegan nabari den jarrera baikorra besteengana zabaltzeko topa-guneak antolatu.

Euskararen ezagutza eta erabileraren garrantziaz kontzientziaz normalizazio planaren arabera, hemendik urte batzuetara elebidunez irakatsi beharko dugula gogoratzea.

- Autobiografia linguistikoa egin eta taldean hausnartu.
- Hitzaldi bat antolatu.
- Euskara gustura egiten ditugun ekintza zerrenda idatzi.
- Aukeratutako kanta, olerki... entzun, gozatu eta bakoitzari sortarazten diona konpartitu.
- Irakasleen arteko harremanetarako hizkuntza euskara izateko ekintza ludikoak antolatu: afari literarioak, lehiaketak...
- Txartel nabarmenak jarri irakasle geletan euskararen inguruko esaldi, bertso edo hausnarketak proposatuz.

Euskararen gunea sortzea, berrantolatzea...

- Euskaraz irakurtzeko liburu gomendagarrien zerrenda jarri.
- Euskararen normalkuntzarekin erlazionatuta dauden materialak ezagutarazi eta eztabaida guneak sortu.
- Normalkuntzaren informazio txokoa irakasle gelan sortu.
- Euskararen txokoa baliabide berriekin hornitu.
- Kontsulta liburuak antolatu, dagoenaren berri irakaslerian artean zabaldu eta argitaratzen den material berria aztertu.
- Irakasleak eskura izan ditzala ahalik eta baliabide gehien euskaraz (aldizkariak, berria...).
- Herriko eta eskualdeko ekintzen berri eman.
- Eskualdean antolatzen diren Irakasleen Topaketen berri eman.

02.02. IRAKASLEAK. EZAGUTZA.

Euskara 'gehiago' edo hobetzeko ikasketak. Zer nolako prestakuntza edota ekintzak antolatuko dira euskara maila hobetzeko; hizkuntza bera eta hizkuntz metodologiari buruzko ikasketak, eta euskal kultura eta egungo euskararen erabilerari buruzkoa (soziolinguistika, etnografia, historia, hizkuntzen psikopedagogia ...

Euskarazko ikastaroen eskaintza ezagutaraztea: IRALE, BERRITZEGUNE, GARATU, HERRIKO EUSKALTEGIAK, HITZALDIAK

- Euskararen lanketaren inguruan jasotzen den informazioa irakasleen esku jarri: horma irudiak, hitzaldi informatiboak, "berripapera", oharrak...
- Ikastetxean jasotzen dugun informazioa, materialak, ikastaroak... irakasleen esku utzi.

Irakasleen euskarazko gaitasuna hobetzea, aberastea ahoz zein idatziz eta ezagupena sendotzea, gaurkotzea, kalitatea hobetzea...

- Zuzendariak eta mintegi buruak egoera aztertu eta beharren arabera interesatuekin hitz egin eta IRALE ikastaroak proposatu.
- IRALE Ikastaroak ikastetxean antolatu edo/eta kanpoan egiteko erraztasunak eman.
- IRALE ikastaroa ikastetxean egin.
- Ikastaroetan ikasitakoa zabaldu eta ikastetxean jakinarazi.
- IVAP aldizkarian dauden ariketak landu.
- Euskara teknikoak jorratu.
- Irakasleei euskararen zailtasunen aurrean bakarkako laguntza eskaini.
- Irakasleen mintzamina hobetzeko ikastaroa egin.
- Ahozotasuna eta euskal jolasak lantzeko ikastaroetan parte hartu eta haien aplikazioa bultzatu.
- Euskalkia lantzeko ikastaroa antolatu
- Eskualdeko esaerak ezagutu eta baita bertako gazte hizkera ere.

Euskararen kalitatearen hausnarketa egitea.

- Akatsak eta hutsuneak zuzentzen irakasleak trebatu.
- Akatsak lantzeko irizpideak adosteko saioak egin.
- Euskararen erabileran egon daitezkeen akatsen zuzenketak bermatu.
- Hilero esaera zaharrak eta zenbait egitura aukeratu eta landu.
- Euskaltzaindiak argitaratzen dituen gomendio eta arauak etapatan zabaldu.
- Hizkuntzaren erabileran zuzendu beharreko akatsen aipamena egin eta eredu egokiak eskaini: "berripapera", horma irudiak, ordenagailua...

Hizkuntzen irakaskuntzarako metodologiak ezagutzea eta hausnarketa egitea.

- Hizkuntzen irakaskuntzarako metodologiaren inguruko prestakuntza jaso.
- Hizkuntz metodologia hausnartzeko eta adostasunak bilatzeko saioak egin, artikulatuak irakurri, eguneroko lana aztertu...
- Euskara bera lantzeko estrategiak ikasi.
- Euskararen erabilerarako estrategiak ezagutu.
- Ikasleen hizkuntza kalitatean eragina duten estrategietan jantzi.
- Ikasleen ahozko akatsen identifikazio eta zuzentzeko erak aztertu.
- Gure geletan ahozkotasuna era egokian lantzeko estrategiak ezagutu (berritu, hobetu).
- Aho hizkuntzaren lanketarako materialak aztertu.

Prestakuntza saioak: Curriculumaren euskal dimentsioa, Euskal kultura, Euskal Herria, Soziolinguistika...

- IRALE ikastaroa egin.
- Soziolinguistikan trebatzeko saioak antolatu.
- Prestakuntza saioetan Euskal Curriculumaz aztertu.
- Euskal kultura eta mitologia landu.
- Euskarazko web orri interesgarrien helbideak ezagutu eta erabilera bultzatu.
- **Informazio esanguratsua zabaldu: orri informatiboa, horma irudia, ordenagailua...**

02.03. IRAKASLEAK. ERABILERA.

Atal honetan irakasleek beraiek euskararen erabilera ahoz zein idatziz gauzatzeko eta areagotzeko, prestatuko diren helburu eta ekintzak agertuko dira.

Irakasleen euskararen erabileraren diagnostika egitea.

- Euskararen erabileraren neurketa: Irakasleen mintzagrama egin "Branka" tresna erabiliz.
- Diagnostikaren emaitzak aztertu.
- Proposamenak egin, aztertu eta erabakiak hartu.

Euskara komunikazio tresna izatea

- Euskara ikasten ari diren irakasleekin euskara erabili.
- Irakasleen arteko harremanak ahoz zein idatziz euskaraz izan.
- Lehen hitza euskaraz egin.

- Irakasleen arteko bilerak euskaraz egin: klaustroak, mintegiak...
- Bileretako dokumentazio guztia euskaraz egin.
- Ikasleen aurrean beti euskaraz egin.
- Elkarrizketa ez formaletan ere euskara erabili.
- Erabilera bultzatzeko kanpainak egin.
- Erabilera bultzatzeko konpromiso pertsonalak eta taldekoak hartu.
- Irakasleriaren prestakuntza euskaraz antolatu.
- Hizkuntza eredu ona izatearen garrantziaz ohartarazteko saioa.
- Irakasleak eguneroko zereginetan euskararen eredu ona erakutsi: hiztegi aberatsa eta euskal esamoldeak erabili, intonazioa eta ahoskera zaindu.
- Euskararen egokitasuna bermatu: egoeraren arabera dagokion aldaera erabili (euskalkia, hizkera jasoa...).
- Ikasleekin gure interbentzioa nolakoa izango den zehaztu bai gela barruan bai kanpoan: euskaraz non eta noiz jardun, akatsak zuzendu ala ez, euskalkia noiz erabili...
- Arlo bakoitzeko harreman eta ikasketa hizkuntza definitu.
- Eremu ez formalean euskararen erabileran aurrerapausoak eman.

Euskalkien erabilera suspertzea

- Bizkaiera edota inguruko hizkera ulertzeak, menderatzeak eta erabiltzeak duen garrantziaz jabetzeko saioak antolatu.
- Euskalkia erabiltzeko eremuak zehaztu ahoz eta idatziz.
- Bizkaierazko ikastaroan landutakoa sakondu eta praktikan jarri.

02.04. IRAKASLEAK. PARTAIDETZA

Irakasleriaren inplikazio zuzena oso garrantzitsua da. Jarrera eta asmo onak funtsezkoak dira, baina irakasleak eragile zuzena ere izan behar du. Proposamenak iradokitzea, inizatibak hartzea, hobekuntzak suspertzea eta antolatzen diren ekintzetan parte zuzena lortzea oso lagungarria izango da garatu nahi dugun proiekturako. Irakasleria erakartzeko gustuko, baliagarri eta esanguratsuak diren proposamenak antolatu behar dira.

HNPan irakasle guztien inplikazioa ziurtatzea.

- Motibazio saio bat egin irakasleen inplikazioa bultzatzeko.
- Proiektuan parte hartu ideiak emanaz.
- Batzordeari ideiak emateko bideak zabaldu.
- Irakasleen ekarpenak eta kezak jasotzeko bidea zabaldu.
- Ikasturte hasieran ekintza eta asmo guztien berri eman: urteko plana azaldu.
- HNBko kideen ardurak banandu.
- Ekintzak zikloko bileretan landu eta ardurak konpartitu.
- Irakasleen partaidetza eskatu ekintza konkretuetan: literatur lehiaketan epailea, jolas orduko ekintza baten ardura, paisaia linguistikoa, NOLEGA jarduerak...

- Ekintzak gauzatzeko talde eragileak antolatu.
- Ikastetxean eta herrian antolatzen diren kultur ekitaldietan parte hartu.
- Aurrez adostutako erabakiak gogoratu.
- Irakasleen partaidetzaren autoebaluaketarako tresna prestatu.
- Hileroko ekintzen jarraipena egin.
- Ikasturte bukaeran lorpenak aipatu.
- Adostutako erabakiak gogoratu.

04.00. GURASOAK. Orokorra

Hizkuntza Normalkuntzarako gurasoen eremua funtsezkotzat hartzen dugu. Hizkuntzaren transmisiorako oinarrizko baliabidea da, batez ere hizkuntza ez formalean edo kolokialean (euskalkiak) . Hizkuntzekiko jarreretan ere gurasoek badute bere eragina: ikasteko jarrera, erabiltzekoa, kultura adierazle... Horrez gain, ikastetxean komunitate oso esanguratsua izanik, irakasleekin, ikasleekin zein beste familiekin euskararen erabileran zeresan handia duen kolektiboa da.

Gurasoen euskararekiko konzienziakia sustatzea.

- Informazio saioak antolatu.
- Ikastetxeko diagnosiaren berri eman.

Euskara eta Euskal Kulturaren transmisioa ziurtatzea.

- Gurasoak transmisioan eragile direla ohartarazteko azalpenak eman: irakurgaiak, bideoa, txostenak, hitzaldiak...
- Gurasoak protagonista izan daitezen aholkuak eskaini.

Gurasoen partaidetza bultzatzea.

- Ikastetxeak antolaturiko ekintzetara erakarri.
- Guraso talde eragilea sortu, edo ikastetxeko talde eragileetan partaide izan.
- Beraiek HNParenten sustatzaile bihurtu: euskararen erabilera areagotzea eskatu.

04.01. GURASOAK. MOTIBAZIOA

Gurasoen euskararen aldeko jarrera positiboa bultzatzea.

- Seme-alabak matrikulatzen dituztenean euskara ikastea eta euskaraz aritzeak zein onura dakarkien neska-mutilei azaldu gurasoei (ahoz, idatziz).
- Beraien jarrerak seme-alabengan duten eraginaz jabetu arazi: azalpen teorikoak eskaini, ahoz edota idatziz.
- Ikastetxean euskararen inguruan egiten duguna jakinarazi: seme-alabek euskaraz jardunez gustura ari direla eta hizkuntza prozesuan lagungarri zaiela azaldu.

- Eskolan antolatuko diren hainbat ekintzatarako gonbidatu (inauteriak, abesbatzaren saioak, danborrada, gabonetako ikuskizuna, e.a.) beraien seme-alabak euskaraz eta euskararekin gozaten ikus ditzaten.
- Ikasturte haserako gelako bileretan ikastetxearen hizkuntza egoeraren datuak azaldu eta proposatzen diren iradokizunak jakinarazi.
- Egungo egoera soziolinguistikoa ezagutzeko informazioa eman: gizartekoa orokorrean, ikastetxekoa, gelakoa...
- Normalkuntzaren lanaz eta gurasoen eginkizunaz informatu.
- Guraso bileretan hausnarketa saioak egin: guztiak errespetatuak senti daitezela. Lasai hitz egiteko giroa sortzen saiatu.
- Motibazio saioak antolatu.
- Euskara ezagutzen ez duten gurasoek beren seme-alabei ikasketetan laguntzeko dituzten kezkek argitzen lagundu.
- Ikasgela barruko ekintzetan parte hartzeko aukera izan dezaten guraso erdaldunei prestakuntza eta laguntza eskaini.
- Euskaraz bizitzeko bakoitzaren eskualdeak eskaintzen duen aukera baloratu; euskarazko jarduerak prestigiatu.
- Euskaraz dagoen eskaintza (jolasak, CDak, liburuak...) kontuan har dezaten zerrendak bidali: opariak erosteko, oporraldietarako...
- Jakinmina sor dezaketen lehiaketak antolatu: euskararen inguruan galderak egin, familia bakoitzari bidali eta erantzun egokiaren artean zozketa egin.

Euskararen normalizazioan gurasoek duten garrantziaz jabetu araztea. Gure hizkuntzari bultzada emateko beraiek funtsezko eragileak direla sentiaraztea.

- Hizkuntzaren Normalizazioari buruz prestakuntza saioa eskaini.
- Motibazio saioak (hitzaldia, ikastaroa, ekintza zehatzak...) gurasoentzat antolatu.
- HNParentan berri eman ahoz eta idatziz (Ikuspegi orokorra emanaz, edota gai zehatzak aztertuz): geletako bileretan, Gurasoen Hizkuntza Normalkuntza Batzordean, Guraso Elkartean, Organo Gorenean, Guraso Asanbladan...
- Ikastetxeko Ikasturteko Plana azaldu, bertan HN Ikasturteko Plana txertatuta egonik eta guztion zeregin moduan aurkeztuz.
- Guraso guztiei txostentxo bat bidali, 4/5 punturekin, HNP zer den adieraziz eta Euskararen Normalkuntzan beraiek duten garrantzia azalduz.
- Soziolinguistikako informazioa eman, euskararen egoera eta eragileak jakinarazi: datuak eskaini, hausnarketa proposatu eta bideratu...
- Ezagutza eta erabileraren diagnostikoa egin.
- Eginiko diagnostiko edo galdetegiaren, erabileraren neurketaren emaitzen berri eman eta hausnarketa egin.
- Gurasoak euskalduntzeak edo alfabetatzeak euren seme-alabengan izan dezakeen eragin positiboa adierazi: ahozko azalpenen bidez, idatzizko informazioa zabalduz ...
- Beraiek erabiltzen duten hizkuntza eta euskararekiko duten jarrera, seme-alabengan duen eraginaz jabetu. Aholkuak eskaini.

- Familien hizkuntz transmisioaren garrantziaz ohartarazi.
- Ikasturte hasierako gurasoen bileran, euskararen kalitatearen garrantzia eta gurasoen erreferentziaren eragina erabileran, bereziki aipatu.
- Guraso bilera guztietan euskararen gaia jorratu eta ideiak eman, aholkuak eta tresnak eskainiz: telebista, liburuak, emanaldiak, zinea... euskaraz.

04.02. GURASOAK. EZAGUTZA

Gurasoen euskararen ezagutza maila hobetzea, areagotzea: euskaradunek kalitatea handitzea; euskara ez dakitenek, ikastea.

- Maila ezberdinetako euskara ikastaroak antolatu. Taldeak osatu ahal izateko paperak prestatu, banatu eta jaso.
- Euskara ikastera animatuz kanpaina egin ikasturte hasieran. Herriko euskaltegien berri eman eta matrikulatzera animatu.
- Gai ezberdinei buruzko ikastaroak euskaraz egin: auto konponketa, sukaldaritza, informatika...
- Euskaraz aritzeko eta seme-alabekin euskara erabiltzeko ikastaro praktikoak antolatu: kantak, jolasak, esamoldeak, ipuin kontaketa ...
- Eskolako aldizkaria, webgunea, irratia... erabili hainbat ikasketa interesgarri eta erabilgarri hedatzeko: kantak, esamoldeak, txisteak, jokoak, euskarazko baliabideak, e.a.
- Udaletxetik (edo entitate ezberdinetatik) euskara ikasteko edo maila hobetzeko dauden ikastaro eta haietara joateko eskaintzen diren laguntzen berri eman. Matrikulatzeko orriak banatu.
- Euskaraz diren ikastaroen informazioa helarazi.
- Euskal Kultura eta ohiturak landu ikastetxean informazioa emanez, edo ikastaroen bidez.
- Ikastetxean lantzen ditugun hizkuntza akats zuzenketen berri eman eta eredu onak eskaini.
- Beraiek duten euskara ezagutza elkarrekin aberastu. Berba lagun, mintza lagun ...ekimenak.
- Guraso Eskolak edo tailerrak euskaraz antolatu.
- Gurasoek ikastetxera bidaltzen dituzten oharrak kontuan izan eta era egokian egiteko ereduak eskaini.

04.03. GURASOAK. ERABILERA

Gurasoen, beraien arteko euskararen erabilera areagotzea.

- Guraso euskaldunak euskara erabiltzera animatu. Beraien arteko harreman-hizkuntza euskara izan dadin proposamenak egin, informazioa eman eta baliabideak jarri: Baliabide informatikoak euskaraz, hiztegiak ...
- Euskara eremu guztietan ikus eta entzun dadin zaindu: paisaia linguistikoa euskaraz, baliabideak euskaraz, kantak euskaraz...

- Gurasoek antolatutako jardueretan euskaren erabilera sustatzea eskatu: gurasoentzako jardueretan nahiz ikasleentzako ekintzetan.
- Gurasoei mezuak euskara egokian igorri.
- Aholkuak eman ahoz zein idatziz euskara eta euskarazko baliabideak erabil ditzaten.
- Euskal Kultura oinarri duten baliabideak erabil ditzaten aholkatu.
- Izen-Abizenak euskal grafia zuzenean jartzera gonbidatu.
- “Lehen hitza euskaraz “ izatea proposatu.
- Eskolan lantzen ditugun esaldi jatorrak ezagutarazi, seme-alabekin erabil ditzaten.
- Beraiek duten euskara ezagutza elkarrekin aberastu eta erabili: Mintzapraktika, “Berba lagun” / “Mintza lagun ” ... ekimena azaldu eta parte hartzera gonbidatu. Oinarrizko antolaketa proposatu (datak, tokia, tailer, ekintza edo jarduera posibleak...) eta baliabideak eskaini (lokalak elkartzeko ...) Mintza lagun kideak bilatu eta harremanetan jarri.
- Gurasoen euskararen erabileraren aldeko konpromisoa bultzatu: hitzarmenak sinatu.
- Gurasoek dakiten herriko euskara ona dela sinestarazten saiatu: herri hizkera baloratu eta goraiatu.
- Beraiek egiten duten herriko euskara egitera animatu.

Guraso eta ikastetxeko kideen arteko euskararen erabilera areagotzea.

- Eskola euskal gune bezala identifikatu. Hizkuntz paisaia bereziki zaindu.
- Informazioa euskaraz helarazteko bide egokiak zabaldu (korreo elektronikoa, barne bideak...)
- Guraso eta ikastetxearen arteko harremanetan, inguruaren hizkuntza errealitatean oinarrituz, hizkuntza erabilera irizpideak definitu.
- Matrikula berrien kasuan gurasoei HNPre azalpena eman eta gurasoei beraientzat baliagarriak izango zaizkien aholku-irizpideak eskaini (ahoz, idatziz).
- Ikasturte hasierako gurasoen bileretan erabiliko diren hizkuntza irizpideak finkatu eta gurasoei jakinarazi arrazoituz.
- Guraso euskaldunekin gelako batzarrak euskara hutsean egin.
- Gurasoekin harremanetan euskararen presentzia areagotu. Gurasoekin izango ditugun elkarrizketa edo bileretan, euskaraz dakitenekin, euskaraz egin.
- Guraso bileretan euskarazko aurkezpenak egin.
- Gurasoak, irakasle eta ikasleekin dituzten harremanak, bai ahozkoak bai idatzizkoak, euskaraz izateak duen garrantziaz jabetzeko bideak jarri.
- Eskola eta etxearen arteko jarraipena egin ekimen batzuetan.
- “Lehen hitza euskaraz “ irizpidea erabili: euskaldunekin euskaraz aritu; erdaradunekin agurra euskaraz eta elkarrizketak ahal bada bere hizkuntzan...
- Gurasoak eta eskolaren arteko harremanetan (bilerak, gutunak, telefonoa...) ahal den guztietan euskara erabili.
- Gurasoen hizkuntza profilaren datu basea osatu.

- Ikastetxetik bidaltzen diren idatziak, agiriak, oharrak ... hizkuntzaren arabera bereziak izan: euskaradunei euskara hutsez, euskara ez dakitenei euskaraz eta gaztelaniaz.
- Guraso euskaldunei euskara erabiltzearen komenigarritasuna aipatu eta euskaraz lasai jarduteko aukera gogorarazi.
- Etxeetara euskaraz bidaltzen diren txostenen kopurua gehitu.
- Itzulpena zaindu. Testuak egokiak eta ulerterrazak izan daitezen zaindu, sortutakoak eta itzultitakoak.
- Gurasoen euskararen erabileraren aldeko konpromisoak bultzatu: hitzarmenak sinatu.

04.04. GURASOAK. PARTAIDETZA

Euskararen normalizazioan familia bakoitzaren ahalegina eskatzea, jarrera aktiboa bultzatzea.

- Familien hizkuntz transmisioaren ziurtatzea eskatu: euskaraz egin seme-alabekin eta beste ikasleekin, bikote kide euskaldunen artean eta beste familia euskaldunekin.
- Ikasturte hasieran eta ikasturtean zehar egiten diren bileretan euskara transmititu eta erabiltzeko lagungarriak izan daitezkeen aholkuak eta tresnak eskainiko dira.
- Euskararen inguruko erabaki eta aholkuak gogorarazteko noizbehinka oharrak bidali.
- Euskara bultzatzeko eskolan eta eskolaz kanpo (Durangoko azoka, euskararen aldeko jaiak, Kultur ekintzak ...) egiten diren ekitaldiak, emanaldiak ... ezagutarazi.
- Gurasoak Euskal Kulturara hurbildu. Euskal giroa sustatu. Euskalgintzatik sortzen diren ekimen guztien berri izan dezatela: Euskal taldeen berri eman, erakundeek (Udalak, Eskualdekoak ...) antolaturiko jarduerak jakinarazi...
- Euskarazko material berriak ezagutarazi . Ikasturtean zehar, liburu, jolas, disko eta bideo gomendagarrien zerrenda bidali.
- Euskararen aldeko ekintzetan partaide aktibo eta dinamizatzaileak izan daitezen gonbidatu. Zer egin dezaketean azaldu, proposamen zehatzak egin.
- Ikastetxean landuko diren akatsen zuzenketaren berri eman: zer dagoen txarto, zer ondo, nola zuzendu ... Akatsen zuzenketan partaide aktiboak bihurtzea eskatu.
- Senitartekoak beraien etxeetan , ikasleen motibatzaile izan daitezen aholkatu.
- Gurasoek eragin seme-alabek euren lagunekin euskaraz egin dezaten.
- Haur Hezkuntzako gurasoei seme alabekin euskaraz gozatzeko materiala eskaini, bileretan materiala aurkeztuz.
- Euskarazko produktuen katalogoa eta kultur ekitaldien egutegia banatu gurasoen artean.

- Asteburuetan, oporretan, ikasturte bukaeran... haurrei euskara erabiltzen laguntzen dizkieten ekintzen zerrenda banatu eta antolatzen diren ekintzez gurasoei informazioa luzatu.
- Ikastetxean euskal kulturaren inguruan egiten diren lanei buruz informatu. Txosten txikiak bidali.
- Gurasoen ezagutza eta erabileraren arteko aldea murrizteko beraien seme-alabekin lantzeko materiala prestatu eta eskaini (kantuak, jokoak, ipuinak, bideoak...).
- Gurasoentzako idazki elebidunetan euskaldunek euskarazko aldea irakurtzeko joera bultzatu.
- Ikastetxetik etxera bidaltzen diren idazkien irakurketa errazteko erabakiak hartu eta zaindu.
- Beraien seme-alabei opariak egiterakoan euskarazko ekoizpenen berri eman eta gomendatu: Eguberrien atarian euskarazko ekoizpen berriak eta lehenagokoak (liburuak, musika CDak, CD-ROMak, bideo-jolasak...) laburtuta biltzen dituen zerrenda banatu gurasoen artean. Zerrenda hauek ziklo bakoitzera egokituta prestatu.
- Euskararen normalizazioan familia bakoitzaren ahalegina baloratu eta eskertu.
- Gurasoen partaidetzaren garrantzia goraiatu bileretan.
- Gutun baten bidez gurasoei eginiko ahalegina baloratu.

Gurasoen partaidetza bultzatzea, ikastetxeko eginkizunetan parte hartzera erakarriz.

- Ikastetxearen helburu nagusien lorpenerako partaide aktiboak bilakatzeko aukera eskaini.
- Gurasoak ekarpenak egitera animatu.
- Gurasoak ikastetxeko bizitzan integratu, ikastetxean gela barruan antolatutako ekintzen berri eman eta bertan parte hartzera gonbidatuz: aiton-amonak kontu kontalari...
- Gurasoak ikastetxean antolatutako kultur ekitaldietan parte hartzera gonbidatu: jaialdi, danborrada, Neguko jaiak, lhauteriak, Eskolako eguna, Euskal astea, Aste kulturala, Euskararen Eguna, Eguberriak, Santa Ageda, Gaztañerre, Txixiburduntzi, mendi irteerak, lehiaketak antolatu...
- Gurasoen ekarpenak kontuan izan. Beraien asmoak, iradokizunak... aintzakotzat hartu.
- Ikastetxean euskararen inguruan egindako ekimen eta erabakien berri eman.
- Guraso Elkarteak ikastetxean antolatzen dituen ekintzak ikastetxean zabaltzen lagundu.
- Ikastetxean antolatzen diren ekintzen berri Guraso Elkarteari eman, familia guztiei zabal diezaien.
- Gurasoek antolatutako jardueretan euskaren erabilera sustatzea eskatu.
- Informazioa helarazteko bide egokiak zabaldu (korreo elektronikoz, barne bideak).
- Ikasturte haserako bileretan euskararen erabilera indartzeko txostena banatu eta azaldu.
- Ikastetxeko aldizkarian parte hartu. Artikuluak idatzi.

Gurasoen partaidetza bultzatzea Normalkuntza Planean eragin dezaten: banaka, HNBan, Guraso Elkartean, Organo Gorenean.

- Gurasoen Hizkuntza Normalkuntza Batzordea osatzera gonbidatu: ziklo bakoitzeko guraso bat partaide izanik.
- Ikastetxeko Hizkuntza Normalkuntza Batzordean gurasoak egoteko gonbitea luzatu, gurasoen partaidetza izateko, informazioa beste gurasoei pasa diezaien (zubi lana egiteko Guraso Elkartearekin) eta euskararen erabilerarako eremu guztiak kontuan izateko.
- Gurasoen batzordea eta ikastetxeko normalkuntza batzordearen arteko etengabeko koordinazioa bideratu.
- Ikastetxean hizkuntzarekin (euskararekin) zerikusia duten dokumentuen berri eman: Hizkuntz Proiektua, Hizkuntza Normalkuntza Plana, Hizkuntza Trataera Bateratua...
- Ikastetxean antolatzen diren jardueretan eragile euskaldunak bilatu: antolamenduan parte hartu, gauzatzean bertan egon, balorazioak egin ...
- Guraso talde bat Euskal Kultura ezagutarazteko eta bizi izateko antolatzen diren jardueretan inplikatu.
- Guraso Talde laguntzailea sortzeko bideak ezarri: ikasturte haserako bileretan informazioa eskaini, bolondresak eskatu, aukeratutakoei zuzenean deitu banan-banan (telefonoz, aurrez aurre, gutun baten bidez...) eta bilera bat egin proposamena luzatzeko, zereginak aztertzeko...
- Gurasoak partaide diren bileretan ekarpenak egitera animatu.
- Informazioa helarazteko bide egokiak zabaldu (korreo elektronikoz, barne bideak).
- Euskal ekitaldiak antola ditzaten proposatu, bultzatu eta informazioa zabaldu.
- Gurasoak eragile bihur daitezzen gonbidatu beste gurasoak motibatuzeko: Guraso Asanbladan, geletako bileretan, Guraso Elkartean...
- Guraso Taldeak edo APAk euskararen alde egiten diren jaialdietan parte hartu, edo gurasoek parte hartu ahal izateko antolakuntza bermatu.
- Guraso Elkarteak egiten dituen dokumentuak, deialdiak eta oharrak euskaraz sor eta zabal daitezzen gonbidatu, eskatu, lagundu...
- Eskolaz kanpoko ekintzetan euskararen presentzia ziurtatzea eskatu.
- Ikasturte amaieran gurasoek antolatzen duten jaialdian, bozgorailuz ematen diren ohar guztiak euskaraz izan daitezela eskatu.
- Guraso Elkarteak antolatzen dituen ekintzak (ikastaroak, buletina...) ikastetxean zabaltzen lagundu.
- Guraso Elkarteak eskaintzen dituen eskolaz kanpoko ekintzetan euskararen normalkuntzaren jarraipena egin.

05.00. NORMALKUNTZA SUSTATZEKO ERABAKIAK. OROKORRA

Ikastetxeak dituen proiektu nagusien artean Hizkuntza Normalkuntzak bere lekua izan dezan bermatu behar du ikastetxeko zuzendaritzak. Normalkuntza Proiektua ikastetxeko funtzionamendua arautzen duten dokumentu eta arautegietan txertatu behar da, batez ere ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan, Hizkuntza Proiektuan eta Antolaketa eta Funtzionamendu Araudian

Hizkuntza Normalkuntza Proiektua ikastetxeko dokumentu ofizialetan txertatzea eta agertzea.

- Ikastetxeko dokumentuetan jasota gera dadin, behar den bilera eta batzordeetan, Hizkuntza Normalkuntza Proiektua aurkeztu.

Hizkuntza Normalkuntza Proiektua ikastetxeko estamentu guztietan aurkeztea.

- Klaustroari aurkeztu honen onarpena eta konpromisoa jasotzeko asmoz.
- Gurasoen partaidetza eskatu Hizkuntza Normalkuntza Proiektua aurkeztean.
- Begiraleei Hizkuntza Normalkuntza Proiektua azaldu, euren lanaren garrantziaz ohartaraziz.

Ikastetxean eredu euskalduna indartzea.

- Hezkuntza Sailari eredu aldaketaren baimena eskatu eta matrikulan aukera hori eskaini.
- Heziketa Zikloan, euskal lerroa martxan jarri.

05.01. HEZKUNTZA PROIEKTUAN

Ikastetxeko dokumentu nagusia da. Honako hau izango da beste proiektu guztien markoa. Ikastetxeak lortu nahi dituen oinarrizko helburuak, ikastetxearen identitate printzipioekin eta ikasleen hezkuntza-premiekin bat etorriko direnak. Horregatik, ikastetxeko Normalkuntza Proiektuaren helburuek Hezkuntza Proiektuaren helburuekin bat egingo dute.

Hizkuntza Normalkuntza Proiektua Hezkuntza Proiektuan txertatzea.

- Normalkuntzaren inguruko proposamenak egin eta klaustroan azaldu.

Hezkuntza proiektua berraztertzea eta eguneratzea.

- Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua berrikustean, Hizkuntza Normalkuntzako erabakiak txertatu.

- Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua klaustroan aurkeztu.
- Hezkuntza proiektuko helburu bat euskararen egoera normalizatzea izan.

Ikastetxean aurrera eramaten diren proiektu guztiak Hizkuntza Normalkuntzaz blaitzea.

- Hizkuntza Normalkuntza Proiektuko helburuak Hezkuntza Proiektuan txertatu eta betearazi.
- Ikastetxeak euskararen alde egiten duen apustua Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan definitu.

05.02. CURRICULUM PROIEKTUAN

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua Curriculum Proiektua baldintzatzen duen markoa da. Curriculum Proiektuak hizkuntzaren tratamenduari buruzko irizpideak zehaztuko ditu. Etaparen helburu orokorrak ikastetxearen testuinguru sozio-ekonomikoari eta kulturalari, ikasleen ezaugarriei eta beharrei eta ikastetxe bakoitzeko hizkuntza-aukerei egokituko zaie Curriculum Proiektua.

Ikastetxeko Curriculum Proiektua euskaraz egitea.

- Ikastetxeko Curriculum Proiektua euskaraz sortu.
- Curriculum Proiektua euskarara itzuli edota euskara egokian jarri.

Euskal Curriculumaren inguruko hausnarketa egitea.

- Euskal Curriculumaren inguruko prestakuntza jaso.
- Ikastetxeko Curriculum Proiektua berrikusi, euskal curriculumaren ildotik.
- Curriculumaren euskal dimentsioaren garrantziaz ohartarazi.

Ikasleen euskararen ezagutza ziurtatzea.

- Euskara lantzeko curriculum berrikusi.
- Euskara bigarren hizkuntzatzat duten ikasleen ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren inguruko hausnarketa egin.
- Metodologia komunikatiboa landu: erabileran oinarritutako ezagutza bultzatu.
- Hizkuntza Trataera Bateratua landu: metodologia, testuen sailkapena eta ebaluazio-irizpideak.
- Ahozkotasanaren lanketa curriculumean txertatu.
- Euskalkiaren trataera aztertu.

05.03. ANTOLAMENDU ETA JARDUERA ARAUDIAN.

Honako dokumentu hau ikastetxeko antolamendua eta jarduera araudia da. Antolamendu mailan egokitu beharrekoak izaten dira Hizkuntza Normalkuntza Proiektuko erabaki batzuk.

Antolamendu eta Jarduera Araudia euskaraz izatea.

- Ikastetxeko Antolamendu eta jarduera araudia euskara egokian jarri.
- Dokumentua euskaratu.

Hizkuntza Normalkuntzako erabakiak Antolamendu eta Jarduera Araudian txertatzea.

- Ikastetxeko Hizkuntza Normalkuntzaren antolaketa zehaztu: Hizkuntza Normalkuntzako Arduradun Teknikoa, Hizkuntza Normalkuntza Batzordearen funtzioak...
- Ikastetxean adostu diren euskararen erabilera-jokabideak jaso: bileretan, harremanetan, eremu formal eta ez-formaletan...

Antolamendu eta Jarduera Araudia berraztertzea, Euskararen Normalkuntza ikuspegitik.

- Ikastetxeko erabakiak berraztertu euskararen erabilera ziurtatuz: jantokia, atsedenaldea, garraioa, eskolaz kanpoko ekintzak...

05.04. IKASTURTEKO PLANEAN

Ikastetxearen ikasturteko planean hizkuntza aldetiko lehentasunak ezarri behar dira. Horrez gain, ikasturterako ezarri diren helburuak eta ekintzak zehaztuko dira planean; honela, ikastetxeko estamentu guztiek honen berri izan dezaten ziurtatzen delako.

Ikasturteko Plana euskaraz egitea.

- Plana euskara egokian sortu

Ikasturteko Planean, Hizkuntza Normalkuntzako Urteko Plana txertatzea.

- Ikasturteko planean Hizkuntza Normalkuntzako urteko plana zehaztu.
- Ikastetxeko esparru bakoitzean egingo diren jarduerak agertuko dira.
- Aginte-organoetan planaren aurkezpena egin.

05.05. AURREKONTUA

Ikasturteko Hizkuntza Normalkuntza Plana gauzatzeko behar diren baliabideak eta sostengua eskaini behar du ikastetxeko zuzendaritzak. Baliabide materialei dagokienez, ikasturteko aurrekontuan zehaztu behar dira.

Ikastetxeko aurrekontuak euskaraz izatea.

- Aurrekontuak euskara egokian egin.
- Ikastetxeko kudeaketa ekonomikoa egiteko euskarazko aplikazioak erabili.

Hizkuntza Normalkuntza Planaren ekintzetarako aurrekontua zehaztea.

- Ikasturteko Planean agertzen diren ekintzetarako baliabide materialak eskaini.
- NOLEGAKo ekintzak aurrera eramateko, diru-laguntzaz gain, ikastetxeko aurrekontuetan atal bat bereizi.
- Beharrezko baliabideen zerrenda eta lehentasun mailako irizpideak zehaztu.

Udaleko deialdietan parte hartzea.

- Normalkuntza Proiektuak bultzatzeko dauden diru-laguntzetarako, aurrekontu zehatza aurkeztu, lehentasunak ezarriz.

05.06. BESTELAKOAK

Ikastetxeko kalitate-prozesuak kudeatzeko dokumentazioa euskaraz izatea.

- Dokumentazioa euskaraz sortu.
- Dokumentuak euskara egokian jarri.

Kalitate-sistema desberdinetan, hizkuntza normalkuntzako irizpideak txertatzea: EFQM, ISO...

- Lantaldeko bilerak euskaraz egin.

- Euskarazko baliabideak lehenetsi: txostenak, aplikazio informatikoak,...
- Kalitate-sistemako prozesuetan, hizkuntzaren aldagaia sartu.

Hizkuntza Normalkuntza Proiektua aztertzea eta egokitzea.

- Ikastetxeko diagnostia egin.
- Hizkuntza Normalkuntza Proiektua berritu.
- Proiektuaren helburuak ikastetxeko estamentu guztietara eraman, ezagutarazi eta adostu.

05.07. URTEKO MEMORIAN

Ikastetxeko memoria burutzerakoan kontuan izan behar dira ikasturteko planean jarri diren helburuak; eta helburu horiek lortzeko planifikatu diren ekintzak. Atal honetan, ikasturteko planean txertatu diren Hizkuntza Normalkuntzako helburuak noraino bete diren baloratuko dira; eta ekintzak burutu diren ala ez.

Urteko memoria euskaraz egitea.

- Memoria euskara egokian jarri.

Hizkuntza Normalkuntzaren memoria ikastetxeko urteko memorian txertatzea.

- Hizkuntza Normalkuntzaren ikasturteko galdekizun osoa ikastetxeko urteko memorian agertu.
- Ikasturteko planean onartzen diren helburuen betekizun-maila adierazi.
- Ikasturteko planean txertatutako ekintzak noraino burutu diren adierazi.
- Urteko memorian euskararen ezagutza eta erabileraren emaitzak agertu.
- Ikastetxean adostutako Hizkuntza Normalkuntza proiektua azaldu.

05.08. HIZKUNTZA PROIEKTUAN

Hizkuntza Proiektua ikastetxean lantzen diren hizkuntzen trataerari eta erabilerari dagozkien aspektu guztiak biltzen dituen dokumentua da: ikastetxearen hizkuntza-helburuak, irizpide psiko-pedagogiko eta metodologikoak; hizkuntzen erabilera ikastetxean, hizkuntzen lanketa curriculumeko edukietan eta hizkuntzen arloen arteko programazio integratua.

Hizkuntza Proiektua euskaraz egitea.

- Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua egiteko, lan-taldea sortu.
- Ikastetxeko hizkuntza-helburuak adostu eta finkatu.
- Ikastetxeko diagnosa egin hizkuntzen ezagutza, erabilera eta trataeraren ingurukoa.
- Beharrak antzeman eta lehentasunak ezarri.
- Gaur egungo hizkuntza-irizpideak berrikusi eta aztertu: hizkuntza-ereduak, taldekatzeak, irakurketa-idazketaren prozesua, Heziketa Zikloetako hizkuntza-irizpideak...
- Ikasle etorkinei eman beharreko hizkuntza-trataera adostu.
- Euskara komunikazio-hizkuntza legez aztertu: gaitasun komunikatiboa garatu eta euskararen kalitatea hobetu.
- Prestakuntza jaso: metodologia komunikatiboa, hizkuntza normalkuntza, eleaniztasuna, hizkuntzen trataera bateratua....
- Ikastetxeko hizkuntzen irakaskuntzaren planteamendua berraztertu.
- Hizkuntzen irakaskuntzako metodologiako ildo nagusiak aztertu.
- Hizkuntza Proiektuaren proposamenen dokumentua idatzi.
- Hizkuntza Proiektua klaustroan aurkeztu, aztertu eta erabakiak hartu.
- Hizkuntza Proiektuaren dokumentua ikastetxeko aginte-organoetan aurkeztu.

Hizkuntza Proiektuaren ildo eta irizpideak ikasturte hasieran gogoratu eta irakasle berriei jakinarazi.